

# 1. BALIO PROPOSAMENA

## 1.1. Nortzuk gara?

Hezitzaile talde bat gara, eta gure ideia taldekide baten lan-esperientziatik sortu da. Lanean urritasun ezberdinak dituzten pertsonak daude, eta horietako bat itsua izatea da. Ezindu hauei laguntzeko asmotan ondorengo proiektua sortu dugu.

Gure enpresa HIRI deitzen da, eta taldeko partaide bakoitzaren inzialekin sortu dugu, hau da, Haizea, Irati, Rakel eta Iñigo. Gure enpresa kooperatiba bat da.

## 1.2. Zer ondasun edo zerbitzu eskaintzen diogu gure bezeroari?

Gure produktua, kamara bat eta mikrofono bat gehitzen zaion gerriko bat da, itsuei errealitatea erakutsi eta bere beharrak asetzen lagunduko diena. Kamararen bidez audiora pasako zaizkio aginduak eta kamarak ikusten duen errealitatea, horrela, pertsonak erreztasunez aurre egin diezaioke egoera desberdinei. Erabiliko dugun materiala neoprenoa izango da.

Gure produktuak ondorengo balio-proposamen hauek izango ditu:

- **Nobedadea:** Gerrikoari kamara bat jarriko diogu, eta interaktuatzeko mikrofono bat eta aurikular bat izango du. Laguntza handikoa izango dela uste dugu.
- **Prestazioak:** Hobekuntzak emango dira kamaran eta interakzioan.
- **Pertsonalizazioa:** Gerrikoa pertsonalizatuko dugu, kolorea guk aukeratuko dugu eta gerrikoak izango duen materiala baita ere. Kolore beltza izango du gerrikoak, eta erabiliko dugun materiala neoprenoa izango da.
- **Diseinua:** Diseinu modernoa eta bakarra izango da. Gure ideiak ez dugu beste produktu baten antza izaterik nahi, beraz, orain arte ikusi ez dena izango da.
- **Prezioa - eskuragarritasuna:** Garestia izango da, baina subentzionatua, Eusko Jaurlaritzarekin akordio bat egiten saiatuko gara beharrezkoa duten pertsonen laguntzak jaso ahal izateko.

1700€-ko kostua izango du gure produktuak, eta akordio bat adosten saiatuko gara Eusko Jaurlaritzarekin 500€-ko diru-laguntza bat emateko ezinduak diren pertsoneri.

- **Arriskua murriztea:** Proiektu hau ezinduei bizitza errazteko helburuarekin egin dugu, bere egunerokotasunean hainbat egoeretan lagunduko diolako.
- **Erabilerraztasuna:** Itsuentzako egokituta egon behar den gerriko bat da.